


### “BATALLA POR EL AGUA” ARTIKULUAREN IRUZKINA

Iruzkin hau egiteko oinarritzat hartutako testua izenburuan aipatutakoa izan da, “Batalla por el agua” hain zuzen. Artikulu hau “El atlas medioambiental” liburu-atlasean aurkitzen da, 26 eta 27. orrialdeetan hain zuzen. Artikulua argitaratua dagoen liburu honen ideia nagusia edo helburua munduan egun ematen diren ingurumen, natura eta ekologia arazoen berri ematea da, bai eta irakurleengan arazo horien inguruko konzientzia sorraraztea ere, munduko egoera desberdinak aztertu egiten bait dira bertan. Testua, munduan dagoen ur-eskasiari buruz mintzo da, bai eta aldaketa klimatikoak ekarriko dituzten ondorioei buruz. Uraren etorkizunean sakondu egiten du, esanez honen eskasia geroz eta handiagoa dela, eta hau eragiten dituen faktoreak zeintzuk diren azaltzen ditu, bai eta arazoaren irtenbideak direnak.


Autoreak, berotegi efektuaren fenomenoarekin hasiera ematen dio testuari, esanez honek sistema meteorologikoetan eta uraren zikloan aldaketak gauzatzen dituela, lurrazaleko uraren disponibilitatea modifikatzen duen bitartean. Prezipitazioek eragindako katastrofeak asko dira, esate baterako inundazioak, lehortekak, zikloiak... Berotegi efektuak, ingurumenaren alderdi asko eragiten ditu, uraren kasuan, ozeano eta glaziarretan hain zuzen. Airearen tenperaturaren igoerarekin, glaziarrek urtzen joan dira



Ondoko irudian, Larssen B izotz plataforma ageri zaigu. Ezkerrerago dagoen irudia 2002ko urtarrilaren 31an hartuta izan zen. Eskuinertara dauden ondorengo bi irudiak otsailaren 17 eta 23 hartuak izan ziren, ikusten da nola izotza urtzen dijon. Azkeneko bietan, martxoak 5 eta 7an hartuak, ikus dezakegu nola urturik dagoen ura antzematen den, eta plataformaren zati bat nola flotatzen dagoen.

Iturria: Administracion Nacional Aeronautica v Espacial.

Uraren eskasian eragiten duen beste faktoreetako bat aipatzen du idazleak, eta hori nekazaritza da. Ezinbestekotzat jotzen du nekazal produktibitatearen gorakada, eta ureztaketa %17a igo beharko zen, mundu osoan elikagai gabezia ez egoteko, baina horrek egungo munduko ur erazketaren %70a hartzen du, gehiegizko kontsumoa dena jada. Beraz, esan beharra dago nekazaritza dela dudik gabe sektore guztietan ur kontsumo gehien erabiltzen duena, %80a hain zuzen, industriarako %12a eta norbanakoaren kontsumorako %8a erabiltzen den bitartean.




Ondoko grafikoan, ur erauzketak ageri zaizkigu munduko herrialdetan sektoreka. Lehen esan bezala eta ikusi dezakegunez, marroiez ageri zaigun nekazaritza sektorea gainontzeko sektoreei gailentzen zaie uraren kontsumoan dagokionez.

Iturria: FAO-ren dokumentuen biltegia. (FAO: Food and Agriculture Organization).

Ur geza egoteko faktore garrantzitsuenak, autoreak testuan dioten bezala, ureztaketa graduaren hedapena eta ur bolumen handiak sahiesteko erabiliko diren tekniken promozioak izango dira.

Arazo nagusienetakoa ur gezaren banaketa kaxkarra da, 500 milioi persona baitdaude 31 herrialdeetan banaturik non baliabide hidrikoak ez dituzten. Uraren hornikuntza, egun kontsideratua da bizitzeko ezibestekotzat den elementua, gizarte zerbitzu unibertsalen prestazioen barne dagoena. ONU-ren arabera estimatzen da 9300 milioi pertsonetatik ur erregio pribatuetan biziko diren pertsonen kopurua 1800 milioi persona izango direla. Eta aldez behar guztietara asetutak egongo ez diren lurraldeetan biziko den jende kopurua 5000milioiekoa izango dela.

Mundu osoan dagoen ur kantitate osoa lurrazalaren %70 hartzen du. Horretatik %97 itsaso eta ozeanoetan dago, eta gazia da, ez edateko ezta nekazal laborantzarako erabilgarria. Geratzen den %3 portzentu hori baino ez da ur geza, eta horren gehiengoa poloen izotzetan, glaziarretan edota lurrazpiko deposituetan aurkitzen da, beraz gizakion erabilerarako dagoen ura, mundo osoko %0,003ko kantitatara murrizten da.



Alboan dugun sektore diagraman, azaldutako munduko ur totalaren banaketa ageri zaigu. Urdin argiz, ur gazia ageri da, grafikoaren ia osotasun guztia hartzen duena. Urdin ilunago batekin ordea, ur geza ageri da, bere banaketarekin; glaziarrek, lur azpiko urak, aintzira eta ibaiak, atmosfera eta biosfera.

Iturria: Wikispaces.

Uraren kontsumoa, eskutik helduta doa egileak testuan aipatzen duen faktore klabe batekin, demografia hazkundearekin hain zuzen. Ur gezaren eskaria igotzen dijoa populazio hazkundearen ondorioz, eta bien arteko balantza gero eta irregularragoa da, populazio gero eta gehio egon ahala, eskaria handiagoa baitda, eta ur kantitatea murriztuz dijoa, beraz ura lortzeko lehia areagotuz doa. Aipatzekoa da ere, duela hamar urte eta orainartera dagoen uraren kontsumoaren konzientzia handiagoa dela, sektore ezberdinetan. Baita ere hamar urte horietan ebidentea izan den aldaketetako bat izan da, ikusi dela koperazioa beharrezkoa dela, urak dakartzan arazoak sahiesteko, urak ez baitditu mugak errekonozitzen. Egungo uraren eskariaren tasa, bikoiztu egiten du munduko populazioaren igoeraren tasa. Bizi klaitate hobea edukitzea, berarekin dakar norbanakoak ur gehio erabiltzeko ahalmena edukitzearekin.

Badago uraren eskasian eragiten duen faktore zuzen bat, eta hori uraren erabilera okerra da, beharrezkoa ez dena kontsumitzera ohituta baitdago lurralde garatuetako gizartea. Erabilgarri dagoen ur kantitate eskasa, geroz eta kontaminatutagoa dago, gainera lehen esan bezala, %70a nekazaritzarako erabiltzen da ureztatze sistemetarako, askotan egokienak ez direnak, eta horrela uraren eragilketa eraginez. Munduan, uraren erabilketa desegokia egiten da, egunerokotasuneko jardueretan ur asko ezbeharrez galtzen baitdugu. Elementu hau da lehengairik preziatuena munduan, horregatik beharra izan da ahalik eta hoberen erabiltzea. Gauza da gixakiok mugarik ez dugula eta aurrean jartzen zaigun lendabiziko hori aurretik eramaten dugula.

Industria iraultzaren hasieratik, ur edangarria geroz eta gehio joan da kontaminatzen eta gaizki erabiltzen, eta horren ondorioz, ura lehengai bukaezina zelaren ustearekin, irtenbidea topatzeko zailak diren ondorio eta arazo larriak aurkezten hasi zaizkigu, helburutzat kontsumo burujabe bat duen aldaketa radikala burutzen hasten ez bada. Ura da, nekazari, industria, enpresari eta herrialdeen arteko lehia eta gatazken arrazoi nagusienetako bat.

Autoreak bukaeran, uraren kontsumoa moteltzeko zenbait irtenbide ematen ditu, hala nola patroi natural berriak berrezartzea, ureztatze teknika efizienteagoak areagotzea, poluzioaren kontrako jarduerak aurrera eramatea. Baina bati garrantzia ematen badio, hori populazioaren igoera moteltzea da, baina hortarako ere inbertsio ekonomiko handiak beharko lirateke. Azken finean, herrialde garatuaren konpromezua ere ezinbestekoa da uraren jerarkizazio prozesurako. Bitartean, herrialde azpigaratuak gainbeheran jarraituko dute uraren erabateko eskubideen lehian. Uraren beharra duen herrialde batek ezin du bere populazioa elikatu eta sostengatu, eta uraren eskubidea, herrialdeen arteko tentsiorako kausa batean bilakatuko da.

#### **BIBLIOGRAFIA:**

- Atlas Medioambiental de Le Monde diplomatique; Le Monde diplomatique (web).
- Márquez, D.; Los sistemas agrarios; Síntesis.
- (3): Portal del agua de la Unesco (web)
- (4): Radio Onu: [www.unmultimedia.org/radio/](http://www.unmultimedia.org/radio/)